

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren ideia gazteentzat parke bat sortzea den horretan, guregana hurbilduko den bezeroen hainbat behar asetuko ditugu. Gure bezeroek izango dituzten behar horiek identifikatu ahal izateko merkatuaren segmentazioa osatuko dugu. Bezeroak edozein negozio-ereduren muina dira, izan ere, ez baita haiek gabe denbora luzez iraungo duen enpresarik". Hau da, merkatuan, erosleak (bezeroak) eta saltzaileak (ondasun/zerbitzuak) elkartzen dira. Bertan, gure bezeroek dituzten ezaugarriak zerrendatuko ditugu, izan ere, hala, beraien beharrak asetuko dituzten zerbitzuak eskaintzea errazagoa izango da, eta, gainera, ezaugarri horietatik gure zerbitzua definituko dugu. Beraz, hala, gure ideia hobeto osatu ahal izango dugu eta gure proiektuaren erantzuna hobea izango da.

Lehenik eta behin, gure enpresa merkatu masiboko kidea izango da, hau da, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia izango da. Halere, gure ingurua gazteei zuzenduta egongo da, horregatik, adin-tarte mugatua izango du, gutxi gorabehera 16 urtekoetatik hasi eta 25 urte arteko gazteek erabili ahal izango dute gure eremua. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak gazte taldean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrizanak eta arazoak dituen.

Bestalde, gazteentzat zuzenduta dagoen zerbitzu bat denez, haientzat prezio jasangarri bat eskaini behar dugu ahalik eta bezero gehienak erakartzeko, baina nolabait errentagarria izan behar du, azken batean, negozio bat delako. Horretarako, gazteek bi aukera izango dituzte. Batetik, egun bakarrerako sarrera ordaindu ahal izango dute. Hala, egun batean eremuaz gozatzeko aukera izango dute. Bestetik, izenpetzeko aukera eskainiko dugu. Horrela, hilabetean kuota bat ordaindu eta sarrera mugagabea izango dute bezeroek. Gainera, izenpetzea pertsonakoa edo taldekoa egiteko aukera izango da. Horrela, izenpetzen diren bezeroek, dirua aurreztuko dute, eta, guk, hilabetero diru-sarrera bat bermatuko dugu.

Horrez gain, gure gazte parkean gazte guztientzat egongo da lekua, inklusiboa izango da. Gaur egun arte, gure gizartean gazteleku, gaztetxe, batzoki eta beste hainbat motako eremuak egon dira. Hala ere, hauek, ideia politiko bati lotuta egon dira eta ideologia baten baitako jendea elkartzen zen eremu hauetan. Guk ideia horrekin apurtu nahi izan dugu, izan ere, gure printzipioek ez dute alderdi politiko batekin bat egiten eta guk askatasuna, segurtasuna, dibertsitatea, etab. sustatu nahi ditugu. Ildo beretik, ideologia bati lotua ez egoteak, sozializazio zabalagoa ahalbidetzen du, izan ere, ez da emango aurkakotasun politikorik eta aldi berean, gazteak seguru eta libre sentituko dira haiek diren bezala azaltzeko oinarrian inposatutako ideiarik gabe. Gainera, ezintasun fisikoa duten haientzat egokituak egongo dira instalazioak, eta arazoren bat duen bezeroen bat badugu, ekintzak ere bai.

Halaber, kokapena finkatu nahian, guk aukeratu dugun eremua irisgarria da, hau da, garraio publikoa erabiliz iritsi daiteke gure parkera. Honek merkatuan abantaila suposatzen digu; gure proiektua gazteentzat zuzendua dagoen horretan, eta nerabeek gurasoengan duten dependentziaz askatu nahi dutela kontuan hartuta, gure eremura erabilgarria eta ekonomikoki gazteentzat jasagarria den garraio publikoa baliatuz iristea egokia dela iruditzen zaigu. Era berean, kotxez edo bizikletaz iritsi nahi dutenentzat, ibilgailu guztientzat erabilgarria izango den eta dohakoa izango den aparkaleku bat egongo da. Bestetik, oinez iritsi nahi duten horiek bide segurua bermatua izango dute, inguruan dagoen argiteria eta bidegorri girotuagatik. Ondorioz, edozein garraio aukeratuta ere, leku seguru eta irisgarria izango da gure gazte parkea; merkataritza eta kontsumo inguru bat denez, ordu oro jendez inguratua dagoen leku bat da, hala, segurtasuna ematen dio eremuari, gazteen babes sentzazioa bermatuz.

Ondorioz, eta gure merkatuaren segmentazioarekin amaitzeko, gure bezeroen ezaugarriak behin aztertuta, hurrengoak ondorioztatu ditugu. Gure eremua gazteei zuzenduta dagoenez prezioak, eremu ezberdinek, etab. haiei zuzenduta egon behar dutela. Gainera, sozialki eta pertsonalki askeki garapen bat izateko balio izan beharko duela gure eremuak. Beraz, orain, ezaugarri hauek kontuan izanda gure proiektua hobeto definitu ahal izango dugu.